

B

BARREN

Lurrazpikoa azalera

TOKIKOM



Exclusivas Deba Ardotegia

Kalamua, 9 **Urasandi auzoa, 943 742 126** vinotevadeba@gmail.com
607 468 014



7.35€

Anna de Codorniu Cava



13.45€

Juve y Camps Erreserba familia



5.60€

Codorniu 1551 Brut Nature Codorniu Extra seku-semi



7.40€

Txomin Etxaniz Txakolina



8.45€

Martin Codax



11.50€

Terras Gauda Albariño



5.90€

Bordón Ardo errioxarra



8.40€

Piérola Kriantza



9.45€

Viña Alberdi Kriantza



9.80€

Campillo Kriantza



12.70€

Marques de Riscal Erreserba



7.10€

Viña Albina Erreserba



2.85€

Errioxako Kriantza



17.90€

Carlos I Kofitaka



39.95€

Larios 1866 Brandy

Dendako ordutegia: Asteartetik ostiralera 8:00 - 13:00
Arratsaldean 19:00 - 20:00 / Larunbatean: 11:00 - 13:00

| | |
|--------------------------------|--------|
| Canas, urtekoa: | 3.85 € |
| Ramirez de la Pisana, urtekoa: | 2.75 € |
| Urteko ardoa: | 1.95 € |
| Heras Cordon, kriantza: | 7.90 € |
| Viña Real, kriantza: | 5.80 € |
| Viña Salceda, kriantza: | 6.45 € |
| Conde Valdemas, kriantza: | 6.25 € |

| | |
|--------------------------|---------|
| Muga, kriantza: | 12.60 € |
| Monte Real, erreserba: | 7.10 € |
| Viña Ardanza, erreserba: | 16.50 € |
| Añares kriantza: | 3.80 € |
| Viña Arana, erreserba: | 12.60 € |
| Imperial, erreserba: | 15.90 € |
| Solar Viejo kriantza: | 4.50 € |

Ardo eta likore aukera zabala daukagu, kontsultatu gaitzazu!

Ni ez naiz zu baino gutxiago

Egun hauetan, han eta hemen, sarri entzungo dugu azaroaren 25az, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaz hitz egiten. Askori entzungo diogu genero indarkeria jendartearen gaixotasuna edo lakra dela esaten, baina nik uste, gaixotasuna eredu patriarkala eta matxista bera dela, eta erasoak ondorioa, gizon eta emakumeen arteko harreman hierarkiakoaren ondorioa, alegia. Ikuspuntu hau izateak, arazoaren muinera heltzeko bidea erraztuko digu.

Gizon eta emakumeen arteko parekidetasuna lortzeko lanean dihardugun emakumeok uste dugu, genero indarkeriarekin bukatzeko emakumearen jabekuntza eman behar dela, hots, politikan eta jendartean emakumearen parte hartzea bultzatu behar da, honez gain, gizon eta emakumeen arteko elkarlana landu behar da, baita heziketa ere eta, bereziki, gizonen konplizitatea bilatu behar dugu.

Bigarren planoan egotera kondenatu gaituen eredu honek, ikusezin egiten gaituen eredu honek indarkeriaren aurrean ahul egiten gaitu.

Eta nik nahi dudan bezala jantzi nahi dut,

inork puta deitu gabe. Aitorrek kobratzen duen berbera kobratu nahi dut, lan berdina egiten baitugu. Kaletik lasai ibili nahi dut, beldurrik sentitu gabe. Nire gorputzaz gozatu nahi dut, inork bortxatu gabe. Zure etxeko lanak egiteagatik edo nagusiak zaintzeagatik ez nazazu iraindu. Gerra bortxaketak gerra estrategia direlako nazka ematen didate. Polizia-etxean gertatzen diren sexu erasoek ikara ematen didate. Nire aitak, anaiak edo bikotekideak errespetuz tratatu behar nau, ni ez bainaiz zu baino gutxiago.



Izaskun Arozena

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Bigarren planoan egotera kondenatu gaituen eredu honek, ikusezin egiten gaituen eredu honek indarkeriaren aurrean ahul egiten gaitu”

HILEKO AZKEN ZAPATUKO FERIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

- Jolasak eta eskulanak, txikientzako, 11:30ean
- Goi mailako pintxoak, euro baten truke, 11:00etatik aurrera

ZAPATU GOIZARI IKUTU BEREZIA EMAN NAHI BADIOZU

ETORRI KULTUR ETXE PARERA









LURPEKO SEKRETUAK

Angel Maria Tobajas, Erreketako kobazuloko dragoiaren salan.

Elgoibarko eta Mendaroko lur azpietako sekretuak aztertzen urteak daramatza Angel Maria Tobajasek eta egindako lana liburu-proiektu batean jaso du, galdu ez dadin. Elgoibarko eta Mendaroko lur azpietako kobazulo, mehategi eta tunelak dira aztertutakoak eta horien idatzizko azalpenak ez ezik, argazkiak eta Tobajasek berak egindako planoak eta ilustrazioak ere batzen ditu liburuak. Argitaratzeko finantziario zain dago Angel Maria.

Ainhoa Mendibil Artetxe

Elgoibarren 1974an sortu zen estreinakoz espeleologia talde bat. Morkaiko mendizale elkar-tearen baitan sortu zen lehenengo hura, eta horren ostean, beste bi espeleologia talde ere egon dira Elgoibarren, elkarri erreleboa emanaz: 1983an sortu zen bigarrena, Leizarpe, eta 2003an Elgoibarko espeleologia taldea. Guzti horietan hartu du parte Angel Maria Tobajasek

eta gainontzeko talde bakoitzeko ki-deen laguntza izan du esku-artearen duen liburu egiterako orduan.

Elgoibarko espeleologia taldea izan arren, eta gaur egun Elgoibarko lur-azpian diharduen arren, garai batean Mendaroko lurak ere aztertu zituzten. Mendaro orduan Elgoibar zela gogorarazten du Tobajasek; horregatik aztertu zituzten bere garaian Mendaroko leizezuloak ere, eta

hori dela-eta, ageri dira liburuan ere.

Esploratutako hamabi kobazulo ageri dira liburuan baina dagoeneko sei baino ez dira geratzen. Izan ere, gehienak harrobien kokatuta daudenez, harrobiaren lanak direla eta, desagertu egin dira honetz gero.

Kobazuloak baino askoz gehiago

Esploratutako bi mehategietako bat ere

Aztertutako hamabi kobazuloetatik sei desagertuta daude dagoeneko

Ezkerrean San Migelgo kobazuloa. Eskuman Koralen Kobazuloa. Behean aspaldiko Santa Klarako komentuko kolektorean, presako arkuak.



Angel Maria Tobajasek egindako ilustrazioek, perfilezko topografiak hobeto ulertzeko balio diote, espeleologian aditua ez den edozeini.

desagertuta dago dagoeneko. 1983ko uholdeei egozten die Tobajasek mehategia desagertu izanaren arrazoia.

Tunelen artean berriz, Metalkuako kolektorea eta Santa Klarako garai bateko komentuko kolektorea dira garrantzitsuenak eta jende gutxi jakingo duen arren, Tobajasek esandakoaren arabera, Txankakuako zubia-
ren gainekaldean dagoen Kristoren figura babesten duen arkuak, Santa klarako garai ba-

teko komentuko kolektoretik ateratakoa da.

35 urtetako lana batu du liburuan Tobajasek eta Santa Klarako arkuarena ez ezik, beste kuriositate eta sekretu asko gordetzen ditu gure lur azpiak. Hala ere, Angel Mariak argi dauka liburuaren helburua ez dela lur azpiko ibilbideen gida bat izatea, eta ez du honen inor ibilbide horiek egitera animatzeko intentziorik. Lan hori espeleologoei dagokiela uste du, eta hortaz, liburua, gure azpian ez-

kutuan dagoen errealitate hori ezagutzera emateko asmoz idatzi du.

Lan asko eta diru gutxi

Finantziario faltan dago Angel Maria Tobajasek idatzitako liburua eta horrela, bi urte daramatza lanak bukatuta, non publikatu jakin ezinda. Dirurik ez dagoen bitartean, lur azpian ezkutatuak, ezkutuan jarraituko dute, inork irakurtzearen zain.

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com



BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaiz Irueta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Uholdeak Mendaron

Azaroaren 13an izandako euriteak, aspaldikoo partez uholdeak utzi zizkigun, eta horrekin batera, lokatza eta hezetasuna Garagartza auzoko hainbat garaje eta portaletan. Igande hartan pasatu genituen ordu batzuk ez ziren batere goxoak izan, urduritasuna eta ezer egin ezina, pil-pilean egon baitziren. Egoera guztiek dakarten bezala, honek ere bere alde ona izan zuen: bat-batean auzokideok, gure arteko harremanak estutu eta elkarlana landu genuen eta orain lehen baino hurbilago sentitzen gara elkarrengandik. Aspaldikoo partez, auzolana naturaltasunez suspertu zen eta hori bibizitza, ikustea, sentitzea benetan hunkigarria izan zen. Gaur egun jakitea, nor dagoen besteei laguntzeko prest eta beharra duzunean nork zabalduko dizkizun ateak jakitea, ez da gauza makala.

Astelehen goiz hartan gure lanpostuak utzi eta besteei laguntzen ibili ginen guztiei eskerrak ematea merezi duela uste dugu. Honekin batera, Mendaroko Udaletxetik jaso genuen laguntza ere, asko eskertzen dugu.

Lan guzti horren emaitzak berehala ikusi ziren, eta arratsalderako Garagartzako auzoak gutxi gorabehera, betiko itxura hartu zuen. Helburua lortu genuen! Eta zeharka galtzorian zeuden beste "balore" mardul batzuk ere berpiztu ziren. Zorionak denoi.

Amagoia Zabala eta Marta Retolaza ☺

Zorionak eta eskerrik asko Elgoibar

Joan den igandean, egindako lanaren fruitua jaso genuen: hauteskundeetan lehenengo indarra izatera iritsi ginen herrian. Oso garbi daukagu emaitza hori jende askori zor diogula eta horrengatik eskerrak eta gure zorionik beroenak eman nahi dizkizuegu hori posible egin zenuten guztiei: Propaganda lanetan jardundakoei, boto paperak doblatzen jardun zenutenei, ekitaldian eta argazkera hurbildutako guztiei, ahaldun bezala lanean egon zinetenei, gure mezua zabaltzen lagundu diguzuenoi eta nola ez, zuen konfiantza eta bozka eman diguzuen guztioi eta baita, bozka eman nahi eta posible izan ez duzuenoi ere. Ez dugu aukera alferrik galtzen lagako. Zorionak eta eskerrik asko.

Amaiur ☺

Aupa, Aina!

Aspaldiko! Azkenengo bisittan porrak egitten ere jardun gauduala uste dot. Ez nago seguru. Amets moduko bat izaten dira 40 minutu hórrek, eta behin bukatuta, akabo. Baina bueno, ez dira notizia txarrak domekakuak. Jiro ttiki bat gehixago eman dau herri eder honek aurrera bidian, eta are gehixago guriak, Elgoibarrek. Baina domekan bertan, eta aste osuan zihar, pena handi bat dakat bueltaka barruan. Zuek, momentu hórrek horren urrutitik bizi biharraren penia. Ondo dakizue, danori esker allau gara gauden lekura, eta alkarrekin ospatuko dogu berandu baino lehen. Hurrengo, baietz zuek ere, guk bezain urruti sentittu Madril!

Besarkada handi bana hórko danori!

Aino ☺

Lekuko bila

Joan zen martitzenean, hilaren 22an, auto bat San Frantzisko iturri gaineko aparkalekuan aparkatzen ari zen, 13:00etan. Beste auto bat geratu egin zen hari aparkatzen uzteko, eta ni ere, honen atzean geratu egin nintzen. Bat-batean, nire aurrean geldirik zegoen autoak atzera egin zuen, indarrez, eta nire autoaren kontra jo zuen. Kolpe handia eman zidan, eta autoaren kolpe-leungailua hondatu zidan. Gizon bat zegoen lekuko, eta bere izena emango zidala agindu zidan. Udaltzainak hantxe parean zeuden, eta gizezko horri esan zioten izena emateak hainbat arazo suposatuta ahal zizkiola deskuiduan epaiketara bat egongo balitz, eta orduan alde egin zuen. Gizon horri eskatu nahi diot, mesedez, jar dadila nirekin harremanetan, 678 737 321 telefonoan. Eskerrik asko.

M. J. G. ☺

OHARRA

Datozen aleak abenduaren 2an eta 23an argitaratuko ditugu. **BARREN**en zerbait argitaratu nahi izanez gero, eskertuko genizueke data horiek kontuan hartzea. Abenduaren 2ko alean argitaratzeko informazioa azaroaren 30era arte jasoko dugu, eta abenduaren 23an argitaratzekoa berriz, abenduaren 19ra arte. Eskerrik asko.



Ainara Sedano



Noemi Otegi



Epa Noe, gai sakonarekin nator gaur. Orain dela egun batzuk lagun on batekin aritu nintzen harreman luzeei buruz hitz egiten: bikote berarekin urteak eta urteak ematean bien artekoak norantz egiten duen, harremanaren bilakaeraz, etabarrez aritu ginen luze, bakoitzak bere iritzia agertuz. Bere kasua oso gertutik ezagutu ostean iruditzen zait agian ilusioa apur bat galduta, edo galduta ez bada ezkatutua duela. Bikote konkretu honen alde biak ezagutzen ditut ederki, eta alde batek ilusioa duela dioen arren, beste aldeak ez du batere somatzen. Eta egia da norbaitek zuk nahi duzun eran ez bazaitu maite, ez duela esan nahi maite ez zaituenik, baina nola edo hala jakinarazi behar dizu zuek txoro dagoela gauzak aurrera egin ahal izateko. Hala ikusten dut nik behintzat. Iruditzen zait askotan erosotasunak gain hartzen diola ilusioari, eta bai, zaila da tripan txiribitak urteetan zehar mantentzea baina... txiribita ziztrinik gabe ere urteak joan eta urteak etorri jendeak nola egiten duen ere ez zait buruan sartzen.


“Posible ote da galdutako ilusioa edo baztertutako maitasuna berreskuratzea?”

Gorputzeko minak sendagileak sendatzen dituen gisara, ilusioa izorratzen denean nola eta non konpontzen den norbaitek jakingo ote du? Posible ote da galdutako ilusioa, baztertutako maitasuna, berreskuratzea? Ba al duzu zuk ideiarik, Noe? Ezagutzen ditudan bikote batzuen artekoan sinesten dut, beste batzuetan ez... baina bi hauen artekoan sendo sinesten dut eta gura nuke lortuko balute batak besteari erakustea haien artekoak pena merezi duela.

Maitasuna idealizatu egia dugula uste dudala esango dizut, eta ez da aitzakia bat. Ez ote ditugu pelikula gehiegi ikusi? Behar baino nobela gehiago irakurri eta gainera sinetsi? Begira, lagun berri bat egiten duzunean, hasieran dena izan daiteke ederregia, denbora aurrera doan neurrian jakiten duzu benetan laguna duzun edo ez den zuk pentsatzen zenuen bezelakoa. Laguna dela ondorioztatzen baduzu, zenbat eta urte gehiago iraun harremanak, laguntasuna gero eta handiagoa bilakatzen da. Benetako laguna, begirada batekin ulertzen duzun hori da, badakizu non ez den eroso sentitzen, zein gaik urduritzen duten, zein lekutara joan nahiko lukeen eta gainera harremana, nire kasuan behintzat, gero eta libreagoa izaten da, ez da beharrezkoa egunero gainean edukitzea, alboan duzula jakiteko.

“Maitasuna idealizatu egia dugula uste dudala esango dizut”

Baina lagun bat izan ordez, bikotekidea badaukazu alboan, horra hor kokka, Ainara!! Bikotekideak, egunero *Ghost* filmeko protagonista izango bazina bezala sentituaraztea nahi badezu, gaizki zabil-tza! Ez ahaztu, astelehen goizean esnatzen zarenean, zeu ere ez zarelara Demi Moore-en antzekoa inondik inora. Agian erlazioak sinple-agoak direla jakitea falta zaigu, ez daukagula zertan fantasia baten bizi beharrik, errealitate gordinak baduela nahi adina gazi eta gozo, ikusteko gogorik baduzu behintzat. (Ah eta azkenik esango nizuke, albokoak kontaktzen dituen pelikulak, ez sinisteko beti, gezur galantak ere kontaktzen dira-eta!)



ESKERTZA

MILAGROS ASCORBE IRUSTA

2011ko azaroaren 10ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna dela eta, salaketa-ekintzak egingo dira Elgoibarren eta Mendaron

Urtea hasi zenetik zortzi emakumek salatu dituzte tratu txarrak Elgoibarren

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna da gaur eta horren harira, bi mural egingo dituzte Mendaron; umeez bat, eta gazteek bigarren, Goñati frontoian, 17:00etan.

Era berean, Elgoibarren elkarretartzea egingo dute Plaza Handian, iluntzeko 19:00etan, Udaleko berdintasun sailak eta mugimendu feministak deituta.

Zortzi salaketa

Elgobarko Udaleko Berdintasun Sailak jakitera eman duenez, urtea hasi zenetik, zortzi emakumek salatu dituzte tratu txarrak Elgoibarren. Horietako lau 44 eta 54 urte bitarteko emakumeak dira, besteak, 19 eta 35 artekoak. Norbaitek tratu txarrak salatu beharra baldin badauka, 016 telefonora deitu dezake.

Beldur Barik lehiaketa

Beldur Barik lehiaketara aurkeztutako elgoibartarren lanak ikusteko aukera izango da gaur arratsaldeko 17:00etatik 21:00era Kultur Etxeko Soto aretoan. Umeen sailean zein nagusienean aurkeztu dira lanak Elgoibarren.

Era berean, lehiaketako irabazleen sari banaketa egingo dute, 19:30ean.

Foru Aldundiari Pilarreko zahar etxea egiteko eskatzen dion mozioa onartu zuen atzo Osoko Bilkurak

EAJ-PNVk, PSE-EEk eta PPK batera, Pilarreko zahar etxea hizpide zuen mozioa aurkeztu zuten atzo Osoko Bilkuran eta aipatutako alderdikideen aldeko botoei esker onartu egin zen. Bilduko zinegotziak abstenitu egin ziren bozketan. Mozioak Gipuzkoako Foru Aldundiari hainbat eskaera egiten dizkio, tartean, Foru Aldundiak legez duen zaharren egoitzen gaineko arduraren betetzeko. Izan ere, bereak dira zaharren egoitzen eskumena eta dirua jartzeko ardurak. Egun, ordea, badira Gipuzkoan zazpi Udal herriko zaharren egoitzek sortutako defizita beregain hartzen dihardutenak, tartean Elgoibarkoa. Horrez gain, aurreko legealdian Elgobarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Pilarreko zahar etxearen inguruan hartutako erabakiak betetzeko ere eskatzen dio mozioak Foru Aldundiari. Alfredo Etxeberriak esandakoaren arabera, Foru Aldundiak badauka proiektu hau gauzatzeko borondatea, baina kudeaketa modua berraztertzea behar omen dute.

Bilduk, bestalde, adierazi zuen aurreko legealdietan ere Foru Aldundiak ez dituela beregain hartu orain eskatzen zaizkion ardurak, eta inork ez duela egoera hori salatu. Alabaina, Aldundiak sei hilabeteren buruan egoera horri irtenbide bat emateko konpromisoa hartu duela-eta, sei hilabete horiek itxaroteko deia egin zuen Bilduk. Azkenik, orain astebete Alfredo Etxeberria alkateak adierazi zuen moduan, Udalak Aldundiko aurrekontuetan partidarik sartuko ote den ziurtatu gabe Pilarreko orubea prestatzen hastearen ideia "arduragabekeria" iruditzen zaiola salatu zuten Bilduk.

Iraunkortasunaren feriak eta azken zapatukoak bat egingo dute bihar



Kontsumo iraunkorraren alde kontzientziatze lana egiteko feria antolatu dute bigarren urtez, eta hileko azken zapatuko azokarekin bat egingo du bihar.

Postu ugari egongo dira iraunkortasunari lotuta: Udalak Emugi proiektuaren azalpenak emango ditu bere postuan, Herri Eskolako eta Ikastolako umeez bigarren eskuko produktuak salduko dituzte, eta besteak beste, Miski Peru elkarteak Udalak ateratako berrerabiltzeko telazko poltsak salduko ditu, euro erdian. Horrekin lortutako dirua, Miski Peru Elkartearentzako izango da. Antolatzaileen arabera, iaz, batutako 1.500 produktuetatik, %40a saldu ziren.

Horrez gain, hileroko azken zapatuko feria egingo dute bihar. Baserriko produktuak erosteko aukera egongo da, eta Nafarroa Plazan egon ohi den txozna Elgobarko Izarra Kultur Elkarteak jarriko du. 12:00etan kale kantariak irtengo dira kantura.

Protagonista **Arkaitz Egaña**



Arkaitz Egaña Bastidak Euskadiko 2011ko txakurdun ehiza xeheko txapelketa irabazi du.

Zambran (Araba) jokaturako txapelketan bederatzi eper bota zituen Egañak eta 4.258'50 puntu lortu zituen guztira. Horretaz gain baina, Euskadiko irabazle izaterakoan, 2012ko Espainiako txapelketarako txartela lortu du ehiztari elgoibartarrak.

Zenbakia **262.000**

Elgoibarko Udalak adierazi duenaren arabera, azkenengo euriteek 262.000 euroko gastua sortu dute, jabetza publikoari dagokionean. 262.000 euro horietatik 12.000 euro Udalak gastatutakoak dira, hain zuzen ere, euriteak izan zirenean aurrera eramandako larrialdi jardueretan. Gainerako 250.000 euroak, landa eremuko baserri-bideetan sortutako kalteak konpontzeko aurrekontuari dagokie. Udala oraindik diru-laguntza hori jasotzeko zain dago, eta alkatearen arabera, ez dago erabakita nondik irtsiko den diru hori.

Horrekin batera, abenduaren 7a da, jabetza pribatua jasandako kalteak konpontzeko diru-laguntzak eskatzeko azken eguna. Horretarako, Donostian dagoen Gipuzkoako Gobernuaren Delegaritzan aurkeztu beharko dira diru-laguntza eskaerak, norberak jasandako kalteen balorazioa eta aurrekontuarekin. Alabaina, abenduaren 5erako eskerak Debemenen entregatzeko aukera ere eman du Udalak. Ondoren, Debemen arduratuko da eskaera horiek Donostiara bideratzen. Era berean, edozein duda izenez gero, bertara jotzeko gomendioa egin die alkateak herritarrei.

Hautaketa **Mugikortasun iraunkorraren aldeko astea**

Espainiako gobernuko Ingarugiro eta Landa zein Itsaso eremuen Ministeritzak, Espainiako zazpi proiektu hautatu ditu Europako mugikortasun irakunkorreko asteko sarietan parte hartzeko, eta horien artean, urrian Elgoibarren antolatutako mugikortasunaren astea izan da aukeratuetakoa bat. Europako 31 proiektu hautatu dituzte guztira.



Martxan da berriz ere 'Tertuliak' programa

Elgoibarko Izarrak prestatu eta Udalak diruz laguntzen duen *Tertuliak* programa martxan da jada.

Euskaraz jarduteko zailtasunak dituztenei laguntzea da programaren helburu nagusia, eta euskaldunak eta euskaraz berba egin nahi dutenak elkartzen dira astean behin. Ordubeteko saioak izaten dira, orain hasi eta ekainera arte.

21 lagunek eman dute izena jada, baina oraindik ere badago parte hartzeko aukera. Elgoibarko Izarrako bulegora jo behar da horretarako, edo telefonoz ere eman daiteke izena, 943 741 626 zenbakira deituta.

Barkamen erradikalaren inguruko jardunaldia

Datorren abenduaren 3an, zapatuan, barkamen erradikalaren inguruko hiru orduko saioa izango da Upaigoiti baserrian. Iluntzeko 18:00etatik 21:00era izango da saioa, eta 30 euro balio ditu. Harremanetarako, iarregiurbizu@hotmail.com helbidera idatzi behar du interesa duenak.

Herri-Gain elkarteko mus txapelketa

Herri-Gain elkarteko XIX. mus txapelketak baditu irabazleak. Azaroaren 19an jokatu zen txapelketa eta Nicolas Aranbarri eta Eusebio Fernandez izan ziren irabazleak. Txapelketaren izen-ematearekin lortutako diruaren %60a, Sigma jabetxeak emandako afari bat eta Arriolak emandako bi ardo botila jaso zituzten opari irabazleek.



Emakumeenganako indarkeriaren aurkako eguna da gaur, azaroak 25.

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako eguna izendatzeak balio al du arazoa konpontzeko?



Laura Mujika
56 urte, kontrol numerikoa

Ez dakit seguru. Uste dut baina, erasotzaileentzako lege bat behar dela eta zigor gogorragoak jartzea ondo legoke, besteek ere ikasi dezaten. Gauza gehiago egin beharra dago, bestela akabo. Tebistan ikusten direnek ere, ideak eman besterik ez dute egiten-eta.



Mari Sol Espinosa
52 urte, erizain laguntzailea

Lagundu, lagunduko dute zerbait, baina ez da nahikoa. Hezikuntza da gakoa. Hortik hasi behar da. Heziketa on bat ematetik pertsonai umetatik, eskolan eta etxean. Ez da erraza. Etxean gauza bat jaso arren, ez dira etxeokarekin bakarrik geratzen.



Pili Freitas
46 urte, etxeoandrea

Garbi dagoena da, eguneroko kontua dela. Eta denak lagunduko du. Egun honek ere bai. Baina egoera aldatu beharra dago. Gizonak ekarri beharko ditugu plazara, elkarretaratzera. Eta txikitatik umeak beste modu batera hezi beharko ditugu.



Aitor Rosario
28 urte, garbitzailea

Ez. Nire ustez horrelako egunak arazo bati jartzen zaizkion partxeak dira. Egutegian horrelako egun bat jartzeak ez dauka zentzurik. Umeei txikitatik erakutsi behar zaie zentzudunak izaten, eta arauak daudela, norberak bere eginda, tamainan betetzeko.

■ SEMAFOROA



Mintxetako nesken aldagela oso egoera txarrean dago: "Mintxetako nesken aldagelen egoera gero eta eskasagoa da. Negua gertu dago eta laster berogailu bat beharko dugu, baina zein entxufetan jarriko dute? Bakarra dago eta bera hondatuta, gainera. Beti beldurrez egoten gara, erre usaina ateratzen delako, zerbait entxufatzen dugun bakoitzean. Urtean ordaintzen dugun kuota ordainduta, ez dugu uste aldagela horrek gutxieneko baldintzak betetzen dituenik. Eskertuko genuke lehen bailehen konpontzea. Mila esker".



Txalo bero bat Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasle eta irakasleei: "Txalo bero bat eman nahi diet guztiei, bai hilaren 17an trikitilari taldeak Musikalean proiektuaren barruan egindako kalejira alaiagatik eta baita Santa Zeziliaren omenez egin diren kontzertu eta kalejirengatik".



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barrene@igoibarkolizarra.com 943 744 112



Amaiur koalizio independentistak jaso ditu boto gehien Elgoibarren eta Mendaron

PSE-EE alderdiak izan du beherakadarik nabarmenena

A maiurrek 2.022 boto eskuratu ditu Elgoibarren, eta 126 botoren alde atera dio bigarren indarrari, hau da, EAJri. Jeltzaleek 1.896 boto izan dituzte, 2008an baino 71 gutxiago, alegia. Demokrazia ezarri zenetik, EAJk irabazi ez duen estreinako aldia izan da Elgoibarren. Bestalde, Elgoibarren ere Espainiako joera errepikatu da, eta PSE-EEK izan du beherakadarik nabarmenena. Alderdi sozialistak 760 boto galdu ditu, 2008ko hauteskudeekin alderatuta. Ezker Batuak 108 boto gutxiago jaso ditu, eta PP izan da 2008an baino boto gehiago jaso dituen alderdi bakarra, 20 boto gehiago, alegia. Mendaron ere Amaiur izan da bozkatuena 379 botorekin, eta EAJk baino 90 boto gehiago eskuratu ditu ezkerreko koalizioak. PSE-EEK, bestalde, 108 boto galdu ditu 2008tik. Orri hauetan dituzue emaitzak eta alderdi politikoen balorazioak.

ELGOIBARKO DATUAK

| Kongresua | Amaiur | | EAJ | | PSOE | | PP | | EB | | Mendakoz | | Euzko Alderdi | |
|---------------------|--------|-------|-------|-------|-------|-------|-----|-----|-----|-----|----------|-----|---------------|-----|
| | 08 | 11 | 08 | 11 | 08 | 11 | 08 | 11 | 08 | 11 | 08 | 11 | 08 | 11 |
| KULTUR ETXEA | --- | 826 | 866 | 837 | 611 | 413 | 241 | 259 | 102 | 48 | 183 | --- | 135 | --- |
| JUBILATUAK | --- | 92 | 151 | 151 | 82 | 54 | 21 | 25 | 10 | 5 | 33 | --- | 9 | --- |
| P. MUGURUZA | --- | 350 | 266 | 286 | 414 | 227 | 153 | 149 | 59 | 43 | 49 | --- | 37 | --- |
| SAN ROKE | --- | 274 | 295 | 276 | 215 | 114 | 84 | 78 | 21 | 15 | 64 | --- | 55 | --- |
| URASANDI | --- | 200 | 149 | 125 | 355 | 218 | 79 | 81 | 46 | 31 | 39 | --- | 23 | --- |
| ALTZOLA | --- | 74 | 31 | 23 | 32 | 22 | 16 | 15 | 12 | 5 | 6 | --- | 5 | --- |
| IMH | --- | 206 | 209 | 198 | 207 | 108 | 55 | 62 | 31 | 26 | 50 | --- | 27 | --- |
| GUZTIRA | --- | 2.022 | 1.967 | 1.896 | 1.916 | 1.156 | 649 | 669 | 281 | 173 | 424 | --- | 291 | --- |



| URTEA | ERROLDA | EMANDAKO BOTUAK | ZURIAK | BALIOGABEKOAK | ABSTENTZIOA |
|-------|---------|-----------------|--------|---------------|-------------|
| 2008 | 9.035 | 5.757 | 112 | 56 | % 36,26 |
| 2011 | 8.949 | 6.134 | 55 | 72 | % 30,84 |

MENDAROKO DATUAK

| Kongresua | Amaiur | | EAJ | | PSOE | | PP | | EB | | Mendakoz | | Euzko Alderdi | |
|---------------|--------|-----|-----|-----|------|-----|----|----|----|----|----------|-----|---------------|-----|
| | 08 | 11 | 08 | 11 | 08 | 11 | 08 | 11 | 08 | 11 | 08 | 11 | 08 | 11 |
| BOTOAK | --- | 379 | 369 | 289 | 265 | 147 | 44 | 57 | 25 | 22 | 66 | --- | 63 | --- |

| URTEA | ERROLDA | EMANDAKO BOTUAK | ZURIAK | BALIOGABEKOAK | ABSTENTZIOA |
|-------|---------|-----------------|--------|---------------|-------------|
| 2008 | 1.316 | 979 | 8 | 91 | % 25,61 |
| 2011 | 1.468 | 938 | 13 | 4 | % 35,22 |

Elgoibarko alderdien balorazioa



Kontutan izanda guretzako hain urrun gelditzen den Madrilerako hauteskundeak genituela batetik, eta jasan dugun bazterketa mediatikoa bestetik, gure kidegoaren eta herritarren lana eta laguntza eskertu eta zoriontzeko hitzak besterik ez dauzkagu.

Euskal Herria aro berri batean dago bete betean, gatazka politikoa behin betiko konpondu eta herri honen eskubideak behingoz aitortuak izango diren aroa. Igandekoa, herritarrek aro berri honi emandako bultzada bezala ulertzen dugu, sekulako bultzada gainera. Ez dugu oraingoan ere, herri bezala, bat eginda Madrilan aurkezterik lortu, baina guk aurrerantzean ere, horretarako zubiak eraikitzen jarraituko dugu. Etorriko dira aukera berriak.

Hauteskunde gauak beste argazki bat ere utzi zigun, herrian lehenengo indarra izatearena hain zuzen. Esparru ezkertiar eta abertzaletik elkarlanean jarduteko ahalegina fruituak ematen ari da eta gehiengo berriak osatzeko aukera inoiz baino erreala dela egiaztatu dugu. Horrek arduraz eta seriotasunez jardutea eskatzen digu eta lanearako grina, biderkatu baino ez zaigu egin.

Lehenengoz, eskerrik asko igandean bozkatzera joan zirenen elgoibartar guztioi, batez ere, EAJ - PNVko alderdiaren izenean, guregan konfiantza adierazi duzenoi.

Aberri eta herrigintzan ez gaude egun baterako. Bide luzea, etenik gabea eta arduratsua izaten da helburuak lortzera eramaten gaituena eta bukaezina herrigintzarena.

Egunerokotasunean aukera eta egoera berriein egiten dugu topo eta igandean ere, hauen arabera, bozka erabakitzerakoan, orain arte ezagutu ez dugun errealitate berri baten aurrean topatu gara.

Oraingoan, gurean, krisiak eta bakegintzak izan dute protagonismo nabarmenagoa. Zailtasunak eta ilusioa. Krisiak kudeaketa zuzena eskatzen du eta bakegintzak, elkarbizitza, errespetua eta errekonozimendua.

Elgoibarko alderdi politikoa nagusia izateak herritarren babesa adierazten digu. Lanean jarraituko dugu aipatutako erronkak bideratzeko. Eskerrik asko.

Jaitsi egingo ginela uste genuen, baina ez horrenbeste. Gure jaitsiera, baina, ez da izan PPK gauzak ondo egin dituelako, PSOEek gaizki egin dituelako baizik. Rajoy-ri bidea libre-libre utzi diogu, eta historiako emaitzarik onenak lortu ditu, baina PPK irabazi baino gehiago, hauteskunde hauek PSOEek galdu ditu. Gauzak ez ditugu ondo egin, eta kritikoak izan behar gara.

Elgoibarri eta Euskadiri dagokionean, ez dugu uste gauzak hain gaizki egin ditugunik, eta ez dugu ulertzen hemengo emaitzak zergatik izan diren horrelakoak. Ezker abertzaleari edo EAJri botoa ematen ez dion jendeak, PP edo PSOE aukeratzen du, normalean: Egoera ona denean, ezkerrera eta egoera zaila denean, eskuinera. Baina guk galdu ditugun 700 boto horiek ez dira PPra joan, beraz, jende hori etxean geratu delakoan gaude. Demokraziari begira, positiboa da Amaiurren presentzia, baina Hauteskunde Autonomikoei begira kezka sortzen digu. Orain Foru Aldundian Bildurekin arazoak ditugu, eta Euskadin ere Amaiurrek irabazten badu, egoera zaila izango da. Guk Elgoibarren eta elgoibartarren alde lanean jarraituko dugu, orain arte bezala.

Hauteskunde Orokorren gaineko nire balorazioa oso positiboa da, eta ez soilik emaitzei begira, baita Alderdi Popularraren Gobernuak Elgoibarri eman ahal dionagatik ere. Oposizioko alderdi bakarra izan arren eta Udal Gobernuak errespetatzen ez nauen arren, beti egon naiz Elgoibarren eskura, eta halaxe izaten jarraituko du. Eskerrak eman nahi dizkiet alderdi popularrarengan konfiantza erakusten jarraitu duten elgoibartar guztiei, horri esker, 2008ko hauteskundeekin alderatuta botoak galdu ez ditugun alderdi bakarra izateaz gain, boto-emaille berriak izan ditugu.

Arduraz, umiltasunez eta sektarismorik gabe jarraituko dugu lanean. Ez dakigu mirariak egiten, baina gauzak ondo egiten direnean emaitzak iristen direla erakutsi dugu. Alderdi Popularrak interes orokorra jarriko du norbanako interesen aurretik, eta gizatasunez egin ahal dugun guztia egingo dugu, beharra duten guztien egoera hobetzeko, hau da, langabetuena, pentsiodunena, eta enpresa txiki eta autonomoena.

Mendaroko alderdien balorazioa



A maiurrek Mendaron eduki dituen emaitzak oso onak direla esan dezakegu, 379 hauteslek eman baitigitue beren konfiantza, eta EAJri, (bigarren indarra), 90 botuko aldea atera diogu. Mendaro bezalako herri txiki batean botu kopuru handia da hori. Udal Hauteskundeetako emaitzei eustea zaila izango zela bagenekien, baina ikusitakoa ikusirik oso pozik gaude. Udal Hauteskundeak igaro ondoren mendaroarren euren konfidantza ematen jarraitzen digute. Zerbaitegatik izango da. Gainera, hauteskunde hauetan talde politiko gehiago egonik, zailagoa da emaitzei eustea. Herriarrek desberdin ikusten dituzte Udal Hauteskundeak edo Estatuko Hauteskundeak. Azken hauek oso urruti ikusten dituzte, beraiekin joango ez balira bezala. Baina oraingoan eskertzekoa da hauteskontzietara hurbildu diren guztien jarrera. Bizi dugun egoera berriak ere zerikusirik edukiko du emaitza hauetan. Horregatik, eta berriro diogu, Amaiurren emaitza oso ona izan da.

Argi eta garbi geratu da Mendarok eta Euskal Herriak aldaketarako gogoia dutela.

Igandeko emaitzen aurrean ezin esan onak izan zirenik, kontuan hartzen badugu Amaiur izan zela garaile Mendaron. Hala ere, nahiz eta Hauteskunde Orokorrak izan, Mendaro herri abertzalea dela agerian geratu da berriro.

Maiatzeko Udal eta Foru Hauteskundeekin konparatuz, ondorio batzuk atera ditugu:

1. Igandean partaidetza zertxobait altuagoa izan arren, eta Bilduri Aralar gehitu arren, Udal Hauteskundeekin konparatuz Amaiurren botu portzentaiak nabarmen jaitsi da, 10 puntu gutxi gora behera. EAJrena aldiz, zerbait jaitsi arren, 6 puntura ez da iristen, eta botuetan bion arteko diferentzia murriztu egin da. Hau guretzat positiboa da, alderdi bezala.

2. Ohikoa den bezala, alderdi espainiarrak igo egin dira, nahiz eta orain dela lau urteko emaitzekin konparatuz, PSE-EEren jeitsiera oso handia izan den. Estatuko portaera Mendaron ere islatu da. Oro har, Gipuzkoan, maiatzetik hona EAJ botuetan igo egin da, nahiz eta ez lortu bigarren diputatua mantentzea. Amaiur hauteskundeetan izanik, eta maiatzean Bilduk erakutsi zuen indarra kontuan hartuz, Gipuzkoan izan ditugun emaitzak positibotzat jotzen dugu.


H auteskundeak bakean eta biolentzia terroristaren mehatxuarekin bizi gabe ospatu dira eta alderdi politikoek euren ideiak askatasunez plazaratu ahal izan dituztela nabarmendu nahi nuke. 75 urtetan pentsatzen duguna esateko aukera izan dugu estreinakoz, hilketen, biolentziaren edo errepresioaren beldurrik gabe. Alde horretatik une gozoa bizi dugu, baina izan ditugun emaitzak kontuan hartuta, egoera garrantzitsua da. Ez dira emaitza onak, eta ez dira guk nahi genituenak. Hori dela eta, Patxi Lopezek iragarri duen bezala, alderdi sozialistak hausnarketa prozesu bat jarriko du martxan. Krisi ekonomikoaren eraginez egoera oso zaila da, eta horrek eragina izan du PSOEn emaitzetan. Krisia hasi zenetik munduko 22 gobernuak egin dute porrot, kolore guztietako gobernuak. Emaitzak onartu eta zergatien analisia egiteko unea da orain, bai zuzendaritzan eta baita oinarrian ere. PSE-EEren hauteskunde lurra sendoa da Gipuzkoan, eta lur horren gainean eraikiko dugu alderdi sozialistaren proiektua. Mendaron, maiatzeko Udal Hauteskundeekin alderatuta lur horren zati bat berreskuratuko dugu.






Elgoibarren, 8.949 lagun zeuden botoa ematera deituta, eta horietatik, 6.134 lagunek eman zuten botoa. 2008ko Hauteskunde Orokorretan baino jende gehiagok eman du, beraz, botoa oraingoan eta, ondorioz, abstentzioa ordukoa baino txikiagoa izan da. 2008an %36,26ak ez zuen bozkatu, eta aurtan, %30,84 izan da bozkatu ez duena. Era berean, maiatzaren 22ko Udal eta Foru Hauteskundeetan baino jende gehiagok hartu du parte azaroaren 20ko hauteskundeetan, orduan abstentzioa %35,03koa izan zen eta 5.846 lagunek eman zuten botoa.

Hauteskundeetako emaitzak
ELGOIBAR



Hauteskundeetako emaitzak
MENDARO




Mendaroko datuen kasuan, 1.468 lagunek osatzen zuten errolda, eta guztira, 938 herritarrek erabili dute euren boto eskubidea. Hortaz, Mendaron ere 2008ko hauteskundeetan baino jende gehiagok eman du botoa. Orduan %39,9koa izan zen abstentzioa, eta orain, %35,22koa izan da. Udal eta Foru hauteskundeekin konparatuta ere, partaidetza handitu egin da, izan ere, bozetara deituta zeudenen %36,56k ez baitzuen botorik eman maiatzaren 22an.


ESPAINIAKO DATUAK:

Espainiako egoera politikoa aldatu egin zen domekan. PPK irabazi ditu Espainiako hauteskunde orokorrak, eta botoen % 99,72 zenbatuta, gehiengo osoa lortu du 186 diputaturekin. PSOEk, berriz, 110 diputatu lortu ditu, inoiz lortu dituen emaitza txarrenak, alegia. PSOEren gainbehera alderdi txikien hazkundearekin batera heldu da, eta, ondorioz, legegintzaldi honetan Kongresua inoiz baino antzagoa izango da. Amaiurrek zazpi eserleku izango ditu kongresuan, eta EAJk, bost.

2011



2008



Urrian...

JAIOTAKOAK



Xabat Ramos Barrutia
Urriak 28
Eneko eta Ainara



Manex Sanchez Silva
Urriak 25
Roberto eta Monica



Iker Elustondo Ramal
Urriak 27
Itziar eta Bittor



Maule Bengoetxea Maio-ra
Urriak 30
Zigor eta Auritze



Ibon Gallastegi Ibarluzea
Urriak 28
Oskar eta Gloria




Danel Iriondo Odrizola
Urriak 20
Josu eta Nahikari



Endika Cabrera Mejias
Urriak 5
Jose Ramon eta Clara



Gari Mosquera Arenas
Urriak 6
Joseba eta Maria



Malen Bilbao Olaskoaga
Urriak 8
Beñat eta Ainhoa




Ella Leon Rodriguez
Urriak 25
Iñigo eta Veronica



Unai Mejuto Garcia
Urriak 30
Roberto eta Monica



Jone Alegria Ebaniz
Irailak 11
Juan eta Lorea



Inar Txurruka Iriondo
Urriak 25
Igor eta Leire



Manex Galdos Urbietta
Urriak 8
Iñaki eta Nerea



Xenki Gandiaga
Etxeberria Urriak 20
Iban eta Nerea

Mikel Palomino Gallastegi
Urriak 7
Iñigo eta Almudena

Julen Salvatierra Moye
Urriak 3
Elvio eta Marleny

Paul Galeano Tadeo
Urriak 4
Lorenzo eta Nagore

Urko Mendazona Laberria
Urriak 19
Alejandro eta Veronica

Olaia Castro Orbea
Urriak 23
Kepa eta Izaskun

Elena De la Prieta Suarez
Urriak 26
Alberto eta Lidia

EZKONDUTAKOAK

- Iñigo Loiola eta Miren Jauregi Urriak 1
- Oscar Martin eta Idoia Zumeta Urriak 8

HILDAKOAK

- Manuel Anton Muñoz • 94 urte • Urriak 2
Jose Mari Larrea Garate • 78 urte • Urriak 10
Mari Carmen Peñalba Arrieta • 86 urte • Urriak 17
María Antonia Portilla Perello • 98 urte • Urriak 18
Gabriel Iglesias del Pozo • 84 urte • Urriak 23

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

T A N A T O R I O A



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 / (Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Jaiotakoan atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRENEKO** erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoan argazkia jartzeagatik **3 euro** kobratzen dugu.

Erretratu zaharra



1952

Aste honetako erretratu zaharra Eulogio Astigarragak ekarri du BARRENERA. 1952. urteko argazkia da, eta Plaza Txikian aterata dago, feria egun batean. Garai hartan azken zapatuko feriak ospe handia zeukan, eta baserritar asko etortzen ziren euren abereak erakutsi eta saltzera. Erretratu honetan, ezkerrean azaltzen den gizonezkoa Amesti baserriko Jose Mari Astigarraga da, eta bizi balitz 100 urte egingo lituzke azaroaren 27an. Beste biak Domingo Leiaristi eta Luis Aierdi dira.

VIII. URTEURRENA

LOREA ETXABE AZKUE



*Edur zuritan hazittako
lore gorrixa ziñan.
Urtu eraitten zendun
inguruko hotza,
eta bedarra hazi erain.*

*Ez dogu gehixago
zure berua igarriko,
baiña hementxe gerauko da
zure arnasia aztarnia,
botatako sustraixen gaiñian.*

Zure familia eta lagunak



2003ko azaroaren 26an hil zen, 30 urte zituela. VIII. urteurreneko meza, azaroaren 26, zapatuan izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.

Santa Zeziliaren omenez hainbat musika ekintza izan dira aste honetan

Musika Bandak kontzertu berezia eskainiko du domekan Herriko Antzokian



Eguneko Zentroko musika ekitaldia.



Ikastolako umeen kalejira.

Azaroaren 22an Santa Zezilia Eguna izan zen, musikarien eguna, alegia, eta horren harira hainbat ekitaldi izan dira aste honetan. Astelehenan Musika Eskolako ikasleek kontzertua egin zuten, eta diplomak banatu zituzten. Martitzenean, bestalde, Ikastolako ikasleek kantuz hasi zuten eguna, eta Plaza Handitik Ikastolara kanta kantari joan ziren. Eguneko Zentroan, berriz, musika emanaldia izan zuten Nagusilanek antolatuta, eta iluntzean musika eskolako taldeen kalejira izan zen. Domekan, bestalde, Musika Banda kalejiran irtengo da goizean, eta eguerdian, Santa Zezilia Eguneko kontzertu berezia eskainiko du Herriko Antzokian.

Herriko dantzariak Euskadiko Soinu Zahar Txapelketarako sailkatu dira



Pasai San Pedron jokatu zuten Euskadiko Soinu Zahar Txapelketarako sailkatzeko kanporaketa, eta Arantxa Ferreirok, Ane Espillak eta Iraitz Gonzalezek txapelketarako sailkatzea lortu zuten. Hamabi dantzarik hartu zuten parte guztira, eta horietatik zortzi sailkatzen ziren datorren zapatuko finalerako. Bihar, Donibanen dantzatuko dute hirurek, eta mutilen kategorian Aitor Asenjok hartuko du parte, hau zuzenean sailkatu baita.

Iñaki San Martinek 'Apur batean soka dantza' liburua argitaratu du



Iñaki San Martín 'Soarte' argazkilariak *Apur batean soka dantza* liburua argitaratu du. Elgoibarren San Bartolome egunez egin ohi den soka-dantzaren inguruko irudiak, eta Haritz dantza taldeko dantzariak dira liburuko protagonistak. Liburua <http://www.fotografiasoarte.com/> webgunean edo Santa Klarako Soarte argazki dendan erosi daiteke.

Oier Ariznabarretak bigarren urtez irabazi du Karakateko igoera eta errekor berria ezarri du

Oier Ariznabarreta durangarrak irabazi du bigarren urtez Karakateko igoera, eta 28:17 denborarekin, 43 segundotan ondu du probako errekorra. Iñigo Lariz elgoibartarrak bigarren egin zuen 29:05 denborarekin, eta hirugarrena Iñigo Lazkano mendararra izan zen, 29:30 denborarekin. Emakumezkoetan, lehia polita eskaini zuten Maite Maiorak eta Nerea Amilibiak. Azken metroetan mendarorarrak hartu zion aurrea aiarrari, eta bera izan zen probako lehenengo emakumezkoa. Elgoibartarren artean, Ainhoa Lendinez izan zen lehenengo emakumezkoa helmugan. Aurpegi onenaren saria, bestalde, Mikel Gabilondori eman zioten. Morkaikok antolatutako proba honek inoiz baino parte-hartze handiagoa izan du aurten. Guztira, 88 lagun iritsi ziren Karakateko tontorrera. Bideoak, argazkiak eta sailkapena, www.ElgoiBARREN.net helbidean. (Argazkiak Morkaiko, Aitor, BARREN)



Edu Uribe, ikusleen txalo artean.



Maite Maiorak irabazi zuen emakumezkoetan.



Iñigo Larizek bigarren egin zuen.



Ainhoa Lendinez, azken metroetan.



Oier Ariznabarreta, helmugan.



Inoiz baino jende gehiagok hartu du parte aurten. Guztira, 88 lagun iritsi ziren helmugara.

Zarautzen hasi du kros denboraldia

Mintxeta atletismo taldeak

Ehunka lagunek hartu zuten parte lasterketan

Mintxeta atletismo taldeko korrikariak joan zen asteburuan hasi zuten kros denboraldia. Zarautzen hartu zuten parte, Isidoro Unzueta krosean. Ehunka lagunek jardun zuten korrika, eta tartean, Elgoibarko neska-mutilak. Infantiletan, Nora Mandiolak laugarren egin zuen, Nerea Peralesek seigarren, Mainer Peralesek zazpigarren eta Nagore Bergarak bederatzigarren. Infantil mutiletan Cristian Aranazek hamargarren postuan amaitu zuen proba, eta alebiletan, Markel Zabala 11. lekuan iritsi zen eta Eider Iglecias 13. postuan.



Mendi bizikleta irteera antolatu dute biharko

Elgoibartik Zumarragara mendi bizikletaz joateko irteera antolatu du Morkaikok biharko. 60 kilometroko ibilbidea izango da, eta antolatzaileek 4,5 orduetan egitea aurreikusten dute. 8:00etan irtengo dira Mintxetatik.

Emakumeentzako spinning saioa, bihar Mintxetan

Kirol Patronatuak antolatuta, emakumeentzako spinning saioa egingo dute bihar Mintxetan. 10:30ean hasiko da ekitaldia eta 11:45ean amaituko da. Abenduaren 17an, bestalde, zikloturistentzako spinning saioa eskainiko dute. Interesatuak abenduaren 5erako eman beharko dute izena.

Ion Egañak Larrabeako golf txapelketa irabazi du infantiletan



Ion Egaña elgoibartarrak Larrabeako (Araba) Udazken-Negu golf txapelketan lehen postua eskuratu du, infantil mailan. 18 zuloeko kategorian hartu zuen parte, eta hamasei partaideren artean, bera izan zen onena.

EMAITZAK

FUTBOLA

Barakaldo 1 – Haundi 1 (3. maila)
Behobia 0 – Elgoibar 3 (Ohorezko Erreg.)
Arrasate 3 – Elgoibar 1 (Ohorezko jub.)
Elgoibar 8 – Bergara 0 (Kad. A)
Antzuola 0 – Elgoibar 4 (Kad. B)
Elgoibar 5 – Sanse 5 (Ohorezko inf.)
Elgoibar 7 – Lenitz 1 (Inf. txiki)
Elgoibar 5 – Anaitasuna 3 (Sen. neska)
Elgoibar 9 – Ilintxa 4 (Aleb.)
Soraluze 1 – Elgoibar 10 (Aleb.)

ESKU PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak 20 – Gazteleku 22 (1. mailako jub.)
Lagunak 22 – Alde Zaharra 20 (2. mailako jub.)
Aurrera Saiaz 22 – Lagunak 20 (2. mailako nag.)

Pala

Lagunak 25 – Alde Zaharra 14 (2. mailako nag.)

ARETO FUTBOLA

Gamon 7 – King-Kong Elg. 4 (Jub.)
Concepto Egile Elg. 10 – Zalambor 3 (2. B)

ESKUBALOIA

Soraluze 30 – Alkorta Elg. 25 (Sen. mut.)
Tecnifuelle Elg. 21 – Jarilleras 22 (Sen. neska)
Eibar B 23 – Beristain Elg. 26 (Jub. mut.)
Basauri 30 – Lauko Elg. 15 (Jub. neska)
Basauri 15 – IMH Elg. 18 (Jub. nesk.)
Astigarraga Elg. 22 – Legazpi 27 (Kad. neska)
Bankoa Elg. 22 – Amenabar C 19 (Inf. mut.)
Txarriduna Elg. 18 – Aibar A 40 (Inf. mut.)
Pulpo 18 – Ikus Elg. 45 (Inf. neska)
Legazpi 16 – Aterpe Elg. 18 (Inf. neska)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 26
16:30 Haundi – Arenas (3. maila)
Domeka, 27
10:30 Elgoibar – Bergara (Aleb.)
12:00 Elgoibar – Bergara (Inf. txiki)
16:00 Elgoibar – Roteta (Erreg.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Domeka, 27
11:15 Ikus Elg. – Eibar (Inf. neska)
12:30 Aterpe Elg. – Pulpo (Inf. neska)
16:00 Grupo Eibar Elg. – Eibar (Kad. mut.)
17:30 Beristain Elg. – Leizaran (Jub. mut.)
19:00 Alkorta Elg. – Romo (Sen. mut.)

ESKU PILOTA

Domeka, 27
12:00 Lagunak – Aurrera Saiaz (2. mailako nag.)

LANA

ESKAERA

- Ingleseko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. Paperak ditut. ☎ **669 311 385 / 626 263 251**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea lan bila. ☎ **686 578 228**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna. ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**

- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**
- Emakumea orduka lan egiteko prest. ☎ **636 581 194**
- Emakumea lan bila. ☎ **650 152 866**
- Emakumea lan bila. ☎ **618 050 902**
- Emakumea lan bila. ☎ **646 143 287**

ESKAITZA

- Zerbitzaria behar da jai egunetarako. Orduka. ☎ **943 530 465**
- Sukalderako langilea behar da, jardunaldi erdirako. ☎ **943 530 465**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Bi logela alokatzen dira gizonezkoentzat. Sukaldea eta erropa garbiketa barne. ☎ **679 843 332**

AUTOAK

- Autoa salgai. Opel Astra SS-AZ. Zuria, gasolinazkoa. 1.100 euro. Negoziagarria. ☎ **610 458 552**

BESTELAKOAK

- Urasandiko La Union elkarteko bazkide plaza salgai. ☎ **659 773 681**
- Gazte Asanbladak sukalderako altzari eta elektrotresnak eta sofak behar ditu. Botatzeko badituzu, deitu eta joango gara bila. ☎ **677 898 633**
- Canon EP-22 toner beltzak oparitzen ditut, berriak, erabili gabeak. Inpresora hauentzat balio dute: LBP-250/350/800/810/1110/1110SE/1120. ☎ **687 421 172**
- 2 urteko katua, kastratua eta atzazkalik gabea oparitzen dut, ethez aldatzen garelako. Goxoa, maitakorra, eta garbia. Etxean edukitzeko aproposa. ☎ **622 269 772**
- Gore-Tex gabardina salgai. Kolore gorri bizia, Ternua markakoa. Aukera ona: 99 euro. ☎ **659 986 943**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Prezioak: Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 12 euro (alokairua), 18 euro (salmenta)

Autoak saltzea: 12 euro. Bestelakoak: 6 euro

Iragarkiari erretratua jarriz gero, bost euro gehiago ordaindu behar dira.

ESKERTZA



Mª CARMEN CHURRUGA AGIRREZABALAGA

2011ko azaroaren 21ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA



PAKITA LIZARRITURRI ARRIETA

2011ko azaroaren 17an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





• Zorionak, **Elene**, asteazkenean urte bat egin zenuelako. Patxo potolo bat familiako eta bereziki, Jakes eta Markelen partez.



• Zorionak, **Oxel**, 5 urte bete dituzulako. Muxu bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Jone!** Ke pasada! 8 urte! Muxu bat etxeko partez.



• Zorionak, **Alain**, zapatuan zure laugarren urtebetetzea delako. Muxu handi bat etxeko denon partez.



• Zorionak, **mari matrika!** Besarkada bat etxeko eta bereziki, Haizea, Intza eta Malen partez.



• Zorionak, **Izar!** Azkenean heldu da zure eguna! Asteazkenean 7 urte! Muxu handi bat etxeko eta bereziki, Olatzen partez.



• Zorionak, **Mikel**, hilaren 28an 2 urtetxo egingo dituzulako. Familiako eta bereziki, Aitorren partez.



• 50 urte elkarrekin horren sasoitsu eta alai pasa dituzuelako, zorionak! Besarkada bero bat familiako eta bereziki, birbiloba Jakesen partez.



• Zorionak, **Nora eta Koldo**, 10 eta 8 urte betetzen dituzuelako. Familiako eta bereziki, Ibon eta Anerren partez.

Erretratu bakarrekogurra: 3 €. Argazki bikoitza: 5 €. Hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. BARRENEKO bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Azaroaren 29an, 17:30etik aurrera
ANTZINAKO JOLASEN SAIOA
Elgoibarko adinduen eskutik.
Animatu zaitzte!



Azaroak 26; **BELDUR BARIK!**
topaketara irteera (Donostia).
Gaztelekuko lokala
itxita egongo da.

UDAZKEN FESTA
AZAROAK 27 (DOMEKA)
HH2-LH2
11:30ean
Plaza haundixan

Tailerrak
Danbolina
Gaztainak
Jolasak

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ERKATEA

25 barixakua

Beldur Barik

17:00 Mural margoketa
Bi mural margotuko dituzte, Mendaroko frontoian. Segidan, bizkotxoak eta txokolatea banatuko dizkiete parte hartzaileei.

17:00 Erakusketa
Beldur Barik lehiaketako lanen erakusketa. Kultur Etxeko sotoan.

19:00 Elkarretaratzea
Emakumeen kontrako indarkeria gaitzesteko. Plaza Handian.

19:30 Sari banaketa
Beldur Barik lehiaketako sari banaketa. Kultur Etxeko sotoan.

26 zapatua

Feria

9:00 Azken zapatuko feria
Elgoibarko baseritarrek euren produktuak jarriko dituzte salgai, eta aberedunek animaliak jarriko dituzte ikusgai. Trikitilariak alaituko dute giroa, eta txosna Elgoibarko Izarra kultur elkarteak jarriko du.

12:00 Kale Kantariak
Nafarroa Plazan.

Feria

11:00 Kontsumo Iraunkorraren feria
Herrian zehar.

Skitaldi politikoa

11:00 Bilduren informazio kanpaina
Plaza Handian.

27 domeka

Musika

10:15 Musika Bandaren kalejira
12:30 Musika Bandaren kontzertua
Herriko Antzokian.
Egitaraua:

1. *Flashing winds* (J. Van der Roos).
2. *Romanza favorita en fa* (L.V. Beethoven).
3. *Viktor's tale* (John Williams)
4. *Suite Hebraica* (M. Gonzalez).
5. *Mery go round* (P. Sparke)

29 martitzena

Ipuin kontalaria

17:00 'Ipuin ez sexistak'
Udal Liburutegian.

30 eguaztena

Ikus-entzunezkoa

21:30 'Dolpo, biziaren muturrean'
Morkaikok antolatuta, Joxe Ramon Agirre 'Marron' mendizaleak eskainiko du, Musika Eskolako auditorioan.

1 eguena

Hiesaren nazioarteko eguna

9:30 Informazio mahaia
Plaza Handian.

Ikastaroa

14:30 'Ekintza berritzaileak'
Txankakuak antolatuta, merkatarientzat, Kultur Etxean. Izena emateko: 943 747 301.

OKINDEGIA

FARMAZIAK (24 orduz)

25 Etxeberria (Santa Ana)
26 Zabaleta
Goizez, Yudego
27 Zabaleta
28 Etxeberria (Errosario)
29 Ibañez
30 Garitaonandia-Bidasolo
1 Etxeberria (Santa Ana)
2 Fernandez

27 domeka FOTERO

Fernandez- Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez -Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta
Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Gianni y sus mujeres»

25, barixakua: 22:15
26 zapatua: 19:00/22:15
27, domeka: 19:00
28, astelehena: 21:30

«Otra película de huevos y un pollo»

27, barixakua: 16:15

LODOSO LEIHOAK
Zure nearrira egindako lana

- PVCa
- ALUMINIOA
- TERMIKOA
- ZURA
- ALUMINIOA
- POLIURETANOAK

Aluminio-egurrean espezialitatea

Leihoetan PLAN RENOVE
€22 Eusko Jaurlaritzaren laguntza

Sigmako industrialdea, Xixilion, 2. pabilioia, 3. zenbakia
Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es
fjodoso@euskalnet.net

Mara Black Diamond
Mara

MOUNTAIN HARD WEAR
berghaus
PETZL
hagan
OSKITRAB
GARMONT
MILLET
GRIFONE
CRAFT
BEAL
DIAMIR
DYNAFIT

MENDI KIROLAK
ARRAGUETA 10
EIBAR.

URDAIAZPIKO DASTAKETA

BARREN AZOKAK ANTOLATUTA



ELGOIBAR, 2011ko ABENDUAREN 2a OSTIRALA
ARRATSALDEKO 19:00TATIK AURRERA



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutzarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

emugi!

elgoibarko
mugikortasun
iraunkorra



EMUGI. Ibilgailuak zentzuz erabiltzeko

AUTO PARTEKATUA (Car-sharing):

Egin zaitez bazkide eta erreserba ezazu, zure beharren arabera, A klaseko Mercedes bat (5 plaza), EAEn noizean behin egiten dituzun joan-etorrietarako. Ez duzu erregairik, asegururik edo mantentze gasturik ordaindu beharko. Erreserbatutako minutuak bakarrik ordainduko dituzu.



PREZIO: 0,20 € 5 minutuko (ordubete 2,40 €)
BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA: 50 €

BIZIKLETA PARTEKATUAK (Bike-sharing):



Erabil itzazu bizikleta elektrikoak herri barruko joan-etorrietarako. Bizikleten motor elektrikoari esker, Mintxetaraino edo Sigmaraino erraz-erraz iritsi ahal izango zara, eta ez duzu aparkatzen denborarik galduko. Eta gainera, gure herriko kaleetan motordun ibilgailu gutxiago ibiliko da.

PREZIOA: 0,25 € 15 minutuko
(ordubete euro 1)
BAZKIDEEN URTEKO KUOTA: 25 €

Informazio gehiago www.emugi.net webgunean edo herritarrentzako arreta bulegoan